


Intxaurrondo

Autoekin kezkatuta

Monseko kiroldegiko arduradunak kezkatuta daude, autoak kiroldegi paretik oso azkar igarotzen direlako. Hori dela eta, Udalak lehenbailehen Mons pasealekuan autoen abiadura murrizteko neurriak hartzea nahi dute.

Kiroldegia kudeatzen duen Internacional Kirol Elkarteko kideek azaldu digutenez, Mons pasealekutik igaro ohi diren autoek aspalditik sortzen dizkiete buruhausteak: "1997an kiroldegia zabaldu zenetik, berdin gabiltza. Kiroldegiko sarreraren eta errepidearen artean hiru metro eskas besterik ez daude. Autoak oso azkar ibiltzen dira eta miraria da orain arte ezbeharrak gertatu ez izana. Eskerrak gurasoak seme-alaben bila etortzen diren, bestela...". Kirol elkarteo kide Javier Donamariak dioe-

nez, padel pista parean, kiroldegia sarreratik gertu alegia, abiadura murrizteko sakingunea jartzea nahi dute. Bestalde, Mons pasealekua norabide bakarrekoa izatea nahi dute. Egun pasealekuak bi norabide ditu eta, jende askok autoa kiroldegi ondoan uzten duenez, arazoak sortu ohi dira bi auto gurutzatzen direnean. Donamariaren arabera, behin baino gehiagotan jo dute Udalera kezka hauek agertzera, baina hala ere, ez dute mugikortasun teknikariekin biltzerik izan: "Apirila bukaeran alkate-



arekin elkartuko gara eta udal teknikariekin harremanetan jartzeko egindako ahalegin guztien berri emango diogu berari".

Pistak estaltzen

Bestalde, laster hasiko dira Monseko tenis eta padel pistak

estaltzeko lanak. Lanei ekin arren, hala ere, maiatza bukaera arte, pistetan jokatu ahal izango da. Ekainean, uztailean eta abuztuan, aldiz, itxita egongo dira. Internacional elkarteoek esan digutenez, lanak irailerako amaituta egotea espero dute.

Kantu eta dantza jira

Hilaren 11n, ostirala, Intxaurrondo Zaharreko Bizilagunen Elkartekantu eta dantza jira egingo du auzoan, 20.00etan. Urriatik 60 lagun astero elkartu dira, bi taldetan banaturik, euskañ kantauak ikasteko, eta datorren ostiralean, ikasitakoetako zenbait abestuko dituzte kalez kale. Kantu eta dantza jira Larrotxene kultur etxetik abiatuko da eta ondoren, afaria egingo da Ipar Haizea elkartearen. Afarirako txartelak hamar eurotan daude salgai Larrotxenen bertan.



Hilaren 13an duatloia

Talai Lagunarteak antolatuta, II. Duatloia jokatu da auzoan hilaren 13an, igandea. Parte hartzaileek 15 kilometro egin beharko dituzte korrika eta 40 bizikletaz. Izena Talai Lagunartearen egoitzan bertan (Mons pasealekua, 74) eman behar da.

Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza

IRUTXULOK banatzaileak behar ditu

IRUTXULOn banatzaileak behar ditugu, ostiraletan aldizkaria banatzeko. Prest zaudetenok honako telefono honetara deitu besterik ez duzue: **943467236**.

IRUTXULOK laguntzaileak behar ditu

Martutenen, Aieten eta Amara Berrin berriemaile lanak egiteko. Kazetaritza ikasten ari bazara, egina baduzu edo idaztea gogoko baduzu, dei ezazu ondoko telefono zenbakira: **943467236**.